

Olentzero piipilean

Soraluzeko Hamabostekaria 60. alea 2002ko abenduaren 20a



*Badatoz Olentzero
eta Mari Domingin*

The illustration depicts Olentzero, a bearded man with a long pipe, wearing a blue hat and a patchwork jacket, holding a large sack. He stands next to Mari Domingin, a woman wearing a tall white hat and a patchwork dress. They are walking through a dark, stylized landscape with a large yellow moon and stars in the background. The scene is framed by a decorative border of colorful triangles.

Gabon zoriontsuek!!



**Tornileria-estanzazioa
eta
extruzioa hotzean**



GOL, S.A. Industriak

Sagar Erreka, 19 45 PK

20590 SORALUZE

Tfnoa. 943 75 21 00 / <http://www.gol.es>

IRATXO GOXODENDA



*Gabon zoriontsuek
eta urte berri on!!*

DENDA LAGUNTZAILEA OLENTZERO ETA MARI DOMINGINEN ETORRERAN



Maria gora, maria behera

ENARA AGIRRE

Ez da hilabete bat be igaro Prestige famatua Galiziako kostetara gerturatu zaneetik ta honek jada gerria be emoten dau. Milaka adbertentzia, milaka oihu, milaka kexa baina ezebez. Itxura danez Galiziako itsasertzak ez dau hainbeste merezi, beste-la zelan geratu leike gora begira halako hondamendi bat etxe onduan daukagun bittartian?

Galdera asko etortzen jakuz burua baina gutxik dauke erantzunen bat. Amorrua emoten dosta arduradunek petrolio ontzixan pisua gainetik kendu nahi izatiak; zeozer ein biharko leukienak beste aldera begiratziak. Baina horrek beste amorru emoten dosta, kulparik ez daukelakuan, askok eta askok hondamendi hau beren buruak goratu eta kontrakuak zuluana sartzeko erabiltziak.

Edozein albistegi ikustia nahikua da politikarixen artian sortu dan giruaz konturatzeko. Honek errua daukala, ezetz erruduna bestia dala... danak euren buruak zurritu nahixan, baina ez dira konturatu maria beltzak eurak danak be zipriztindu dituala.

Galizian gertautakua ez da brometako kontua ta halakuak dozenaka gertau dira ta gertauko dira bihar dan moduko neurrixak hartzen ez badira. Hauteskundiak zeozertarako ospatzen dira baina sortu dan krisixa ikastolako irakasgaixa balitz daneri "0" borobil-borobil ta haundi-haundixa jarriko

notseke. Ez Gobernuak, ez oposiziñuak ez dabe atzapar bat be mobidu laguntzeko. Hori bai! albokua kritikau ta norbere irudi publikua hobetzeko orduan danak prest. Seguru nao Galiziako mariskada eder batera gonbidauko balittue be ez lirakela hain bizkor ibiliko.

Halan da be, oin alperrikua da kulpak batari edo bestiari botatzia ze kaltia einda dao. Galiziako kostak urte luziak biharko dittue lehen bezain aberatsak izateko ta danon ahalegina be ez da nahikua izango horretarako. Milaka boluntarixo dabiz garbiketa lanak eitten kostalde osuan zihar euren borondatia ta ezer gutxi daukela. Galiziako jentia be gelditu bare dabil euren lurra ta lana babesteko burrukan. Bixen bittartian, herrixa lanian jo ta sua dabilela, gure ordezkariak hondamendixari daukana baino garrantzia gutxiao emoten edo, honek arduragabekueguak oindio, kazan Toledo aldian.

Ikusten danez, Prestigeak Galiziako urak baino zeozer gehixao harrotu dau. Bertako jendiak garesti ordaindu dittu gutxi batzuen erabaki eskasak, garestiegi seguru asko. Dana dala, mariak gora eitten daben moduan behera be eitten dau ta oin maria beltzak arduratu ez diraneri be etorriko jakue euren beherunzko maria. Ia ba egun hori laster heltzen dan, danon hobebiharrerako izango da ta.

Telegrapak

Galguak baino bizkorrao korrika egiten daben jente asko ikusi genduan Atxa Memorialian. Stop. baina azkenian "ERBIXA" nagusi. Stop. Gipuzkuarron errenta per kapitako datuak urten dabe. Stop. 12.000 euro garbi urtian....Stop. hori da "batek, ez bestek"-ua. Stop. komunismua da hau, komunismua! danondako berdina. Stop. ya, ya...Stop. Eta Gaztetxeko "ihardunaldixak". Stop. esne kondentsatua moduan kultura kondentsatua. Stop. goxua dao eh!. Stop. txarrena oin modia erregimena egittia dala, "esne gaingabetua" edo hori. Stop. . Stop. Eta Udaleko langilien aldarrikapenak?-. Stop. ai, ai, ai! zinegotzixak hainbeste eta...Stop. eta guk?. Stop. Aurten Olen-tzerokin batera Mari Domingin dator. Stop. Mari Domingin Olen-tzeron aman-tia da. Stop. eta batera bizi dia mendixan. Stop. ezkondu barik. Stop. eta oso umezaliak izan arren ez dauke seme alabarik. Stop. bihar prentsaurreko bat eskeiniko dabe Plaza Barrixan euren arteko maitasun "zirinbola" ofizialki baieztatzeko. Stop. Eta amaitzeko, zegaittik ez, zorionak geure buruari. Stop. kazetaritza modu berezi bat geratu dogulako; akatsak egitten dittuana. Stop. baina hurbila eta maittasunezkua. Stop. GEURIA, KAZETARITZA PLARENTXIARRA!

Gabon zorionsuak eta urte berri on!



Argitaratzailea:

Pil-pilean Kultura Elkarte
Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Soraluze.
Telefonia 943 75 13 04
pilpilean@euskalnet.net

Zuzendaria: Gurutze Ariznabarreta

Erredakzio burua: Egoitz Unamuno

Erredaktoreak: Enara Agirre, Eguzkine Aldazabal,
Gurutze Ariznabarreta, Jon Basauri, Xuban Catalan,
Ugaitz Catalan, Aitor Madrid, Eduardo Pombar, Egoitz Unamuno.

Publizitatea: Jon Basauri (943751304 tel.)

Logotioa: Jon Gabilondo

Banaketa: Pil-pilean Ekoizpena: 1.850 ale

Inprimategia: Gertu Koop. Azala: Pablo Galarra

Diseinua eta Maketazioa: Aitor Madrid

I.F.Z.-a: G20696563 Lege-gordailua: SS-537-2.000

Pil Pileanek ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen eta iritzien erantzunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



SORALUZEKO
UDALA



EUSKO
JAURLARITZA



GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIA



Asteartean arratsaldeko 18:15etan Plazan.

Erreportaia

Behin batean, orain dela urte asko eta asko, bazen Mari Domingi izeneko emakume behartsu bat.

Herritik kanpora zegoen txabola zahar-zahar batean bizi zen Mari Domingi eta gona zahar bat besterik ez zeukan janzteko, gona zahar zarpail bat dena adabakiz beteta.

Gutunak

Ordua da

Oingo honetan egoera larri baten berri emon nahi dotsuegu lerro honen bidez. Gaixa ez da berrixa, preso politiko gaixoen inguruko da. Denok dakizuen bezala, gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten presoek askatasuna eskuratu behar dabe zigor kodearen 92. artikulua arabera. Eta laburtuta bada be, hona hemen Bautista Barandallaren gaixotasunaren kronika larria:

1990eko irailaren 18an atxilotu zeban poliziak eta 12 urte luze honetan kartzela askotan izan da.

Torreron (Zaragoza) zeuala, oin dala 2 urte, hasi jakozen oingo gaixotasun larriaren lehen sintomak: urdaileko mina eta odol isuria kaketan 2000. urtian, Zaragozako ospitalian "Proktitis ultzeradun arina" diagnostikatu arren, presondegian ez zotzen ez osabide egokirik ezarri, ez bihar bezalako jarraipenik egin.

Urte ta erdian, asistentzia desegokiagatik hasierako diagnostia "Kolitis ultzeradun larria" bihurtu jakon.

2002ko apirilaren 30ean, Zaragozako ospitalian ebakuntza egin bihar izan zotzen heste lodixa kentzeko. Hortik aurrera, poltsa bat dauka denbora gutzian gainian, gorputzetik libratu ahal izateko. Harrezkero, 9 aldiz eraman bihar izan dabe espetxetik ospitalera larri, hestean janarixa ez atzera ez aurrera geratzen jakolako. Presondegian ez dago beretzat hain biharrezkoak

diren pertsonal kalifikaturik, baldintza higieniko egokirik, aldizkako osasun jarraipenik, laguntza psikologikorik... Ikusten dozuenez, Bautistaren osasun egoeria eta presondegiko bizimodua ez datoz bat. Orain Iruñako kartzelan dago, 92. artikulua noiz aplikatuko zain. Bautistari ez dotsa inork ez heste lodia bueltatuko, ezta gorputzetik libratzeko bestioak dogun modurik be; inork ez dotsa kenduko edozein momentutan han barruan kutsatuta izateko ardura. Baina 92. artikulua aplikatzeko eskubidea dauka.

Pasatzen dan egun bakoitzeko heriotzera daroian bideari egun bat gehitzen jako. Noiz arte itxoin bihar dabe?.

Legia betetzeko ordua da.

Ordua dan moduan Euskal Presoak Euskal Herrira ekartzeko. Urtian amaieran gaoz eta gure senideak gogotan ditugu. Gure senide presoak -Pedro Jose, Lurdes, Angel- eta errefuxiatuak urrun dare, etxetik urrunegi. Gure etxietan aurten be, euren faltia igarriko dogu. Urte berri on denoi!

Soraluzeko Etxerat

Belarrondokoak

Badaude benetan emandakoak, beroaldi baten ere ederra eman daiteke, narruzala gorritzen dutenak ez dira askoz hobeak, eta belarri eskina harrapatzen dutenak? Baina egia esan ez dira horiek txarrenak, fisikoki ematen ez direnak dira mingarrienak. Horiek saltzen dute,

horien ostekoa da inozo musurik haundiena.

Honelakoak, honelakoak dira EAeko hizkuntza politikak ematen dituenak. Nafarroan aurrez-aurre ematen dituzte, iparraldean berriz geroz eta lotsa gutxiagorekin, baina EAEn?

Euskararen normalizazioan lanean 20 urte omen dabilta, baina oraindik eskolak ez du euskalduntzen, euskalduntzat ez dago justiziarik eta azken oposaketak ikusirik beste 30 urte iraun beharko dugu gutxienez mediku erdaldukin.

20 urtetan lortu dute ordea euskaltzaleoi zein euskarari galanki min ematea, benetan egunero lanean dabilenari bere terrenoan min ematea. Baina nor bazarete, utzi zurikeriak eta jeitsi geure ondora, eta eman benetan!, eman eta utzi esku-marka eder bat!, baina eman. Irailak 14an Bilbon demokraziarekin egin bezala, jeitsi kalera eta erakutsi garbi herriari zuen jarrera zein den euskararekiko.

Euskara zein euskaldunari iruzur politikorik ez!! Eskubidea dugulako, kabidu zaitzete!!

Soraluzeko EHE

hildakuak

Jose Mari Arizaga Arrillaga
Dorotea Goikoetxea Martinez
Florencio Iglesias Iglesias
M^o Luisa Larreategi Alzibar
Anjel Urrutia Ezkurra

Instalaciones Kalebarren S.L.



Urte berri on!!

GAS INSTALAKUNTZAK
ETA PROIEKTUAK
KALEFAKZIOA ETA AIRE EGOKITUA
ITURGINTZA OROKORREAN

20590 SORALUZE TEL. / FAXA: 943 75 23 07 ESKUKO TEL.: 608 67 40 70 / 607 40 37 92
48017 DEUSTU TEL.: 944 75 99 60 POSTA ELEKTRONIKOA: KALEBARREN@INICIA.ES



Herriko berrixak

ASTEARTERO
12:40AN
Soraluzeko berriak
zure etxean
Urte berri on!!

Pil-pileanen eskutik.



Barra kargadore automatikoak
eta makina bereziak

ETXEHUN, S.A.L.

Mendiola Industrialdea 14-5

Tfnoa 943 75 18 91

Faxa 943 75 24 58

E - maila: etxehun@teletel.es
etxehun@euskaltel.net

Gabon zoriontsuak!!

20590 SORALUZE

Gipuzkoa

Kontulan Aholkularitza S.L.

Enpresa aholkularitza
Jabe Elkarteak
Aseguruak

Urte berri on!!

Santa Ana, 13 - 1 ezk.

Tlfonoa: 943 75 17 82

20590 Soraluze

GIPUZKOA

Agenda

Abenduaren 23an

Bertso eskolako gaztetxoak koplakantari. Denda eta tabernetan (10:30etan)

Abenduaren 23tik urtarrilaren 4ra

Soraluzeko Pintura Eskolako ikasleen margolanak ikusgai. Kirodegiko Erakusketa Aretoa. Antolatzailea: Pintura Eskola.

Abenduaren 24an

Gabon Kanta eta Koplak Musika Eskola eta Plaentzia Herri Ikastetxeak goizeko 10:00etan. Bertso Eskolakoak Baserriz baserri.

Abenduaren 24an

Olentzaroren eta Mari Dominginen etorrera. Plaza Barririxan, 18:15etan. Antolatzailea: Pil-pilean K.E.

Abenduaren 26, 27 eta 28an

Zine Emanaldiak (Ikastetxean). Arratsaldeko 16:30etan eta 18:00etan. Udala eta Atxolin guraso elkarte.

Urtarrilaren 2 eta 3an

Ipuin Kontalaria "Gabonetan Ipuin Kontari" 3 eta 8 urte bitartekoak. Kirodegiko hitzaldi aretoa. Goizeko 11:00etan. Udaleko Euskara Zerbitzua.

Urtarrilaren 5ean

Erregeen Kabalgata 19:00etan. Antolatzailea: Parrokiko Taldea.

Urtarrilaren 14tik 20ra

Cubari buruzko argazkiak Kirodegiko Erakusketa Aretoa. Udaleko Kultura Batzordea.

Urtarrilaren 16an

Cuba Corazon Ikus-entzuneak. Jose Maria Zabala. Kirodegiko hitzaldi aretoa. Udaleko Kultura Batzordea.

Merkatu Txikia



IRAGARKIAK

Alokairuzko etxe baten bila Soraluzeko bi gazte dabilta. Kontakutua telefonoa; 943 750155 (goizez eta gauean).



Bi alemaniar Artzai txakurkume emango lirateke. Hilebete ingurukoak. 943 751097 Eitza Baseria.



BEKAK

EUSKARAZKO LITERATUR SORMENERAKO, JOSEBA JAKA BEKAK EMANGO DITUZTE

Deitzailea: Euskalgintza elkarlanean
Baldintzak: Aurreko urteetan horrelako bekarik jaso ez izana gadatu zaie eskatzaileei. Euskarazko literatur lanak sortzeko bekak emango dira.

Zenbatekoa: 7000 euro beka bakoitzeko Epea: abenduaren 19an agortuko da epea. Informazioa. Euskalgintza Elkarlanean Fundazioa. Tlfonua. 943-21-94-27. E-maila: eef@jalgi.com

Lehiketak

* **Amodiozko gutunen XI. Berrigara lehiaketa martxan da.** Epea urtarrilaren 8a. Argibide gehiago 943-76-36-61 e-maila: jardun@topagunea.com

* **Azpeitia: ipuin, poesia, marrazki, margo, zirriborro...lehiaketa.** Liburu batean sar daitkeen edozer abenduaren 9a baino lehen eman behar zaio Aske Bizitaldeari (263 postakutxa, 20730, Azpeitia) Saria: zure lana liburu batean ikustea izango da: informazioa zehatzagoa eta zabalagoa jaso nahi izanez gero: www.galeon.com/askebiziti/sarrera.htm web orrialdera jo.

* **Zarautz:2003.urteaz zorientzeko txartel lehiaketa.**

14-30 urte bitarteko gazteek har dezakete parte. Txartelek 15x10 cmko neurria izanen dute, baina erlieberik ez dute izanen. Saria. 160 eurokoa da. Lanak gaztelekuan eman behar dira, abenduaren 9a baino lehen. Informazio gehiago 943-89-41-20



LAN ESKAINTZAK

LANGAI

Arduraduna behar du debabarreneko enpresak auto rekanbioetarako erref. 91854/2

Kamareroa behar du debabarreneko enpresak . Erref.92016/3

Ingeniaria behar du Durangaldeko enpresak .Erref. 89292/4

Administraria behar du Durangaldeko enpresak Erref.92319/1 (hautagai moduan sartzeara eskatu nahi baduzu 901222901 tlfonora deitu.)

* **Neska euskalduna behar da** gabonetako kanpainan poltsa denda batean lan egiteko. Curriculum-a San Frantzisko kaleko 43an utzi.

* **Pertsona bat behar da** CNCko fresadoran lan egiteko 605701429

* **Mekanografoa behar da** 943-74-11-82 (Goizez deitu Joseba)

* **Esperientziadun kamareroa behar da** asteburuetarako 943-74-37-71



Mirena Alberdi
Zorionak pritzesa!!!!
2002 - 12 - 6 7 urte
Asko maite zaitugu!!
Muxu handi bat
Etxekuen partez.



Garazi Catalan
2002-12-29
Zorionak politori!
Asko maitte zaittugu!
Zure lehengusuen eta
osaban partez.



Maite Domingez
2002-12-04 10 urte
Muxu asko eta hamar
tirakada belarririk!
Lagunen eta etxekuen
partez.



Koldo Krespo
2002-11-24 2 urte
Zorionak zure urtebe-
tetzean.
Etxekoak eta batez
ere Ibon txikiak.



Abel Olaizola
2002-12-10 44 urte
Zorionak
Segi zaran modukua
izaten, maitte zaittugu.
Senitartekuen par-
tez.



Ianire Makinai
2002-12-16 4 urte
Zorionak potxola!
Muxu handi bat.
Etxekuen partez.



Markel Hontangas
2002-12-12 10 urte
Zorionak Markel.
Jarraitu holako jatorra
izaten, ta muxu handi
bat.
Familixiaren partez.



Ohiane Alberdi
2002-12-05 10 urte
Zorionak potxola!
Hamar muxu eta ondo
pasau!
Zure lagun eta etxekuen
partetik.



Iria Martinez
2002-12-27 3 urte
Zorionak pottola!
Zelako haunduxa
egiten ari zaren,
guapetona!
Etxekoen partez.



Maialen Elizburu
2002-12-18
Zorionak potxolo!
Laster ikasiko dozu
bakarrik ibiltzen!
Pil-pileanekoan par-
tez.



Esther Mancisidor
2003-01-15 26 urte
Zorionak!
Muxu handi bat eta
ea aurten gehiago
irtetzen zaren kalera
eeh.
Zure lagunuen partez.



Xuban Catalan
2003-12-30 24 urte
Zorionak!
Nekazal turismo bate-
ra juango bagina
danok? je, je, je!
Pil-pilekuanen partez.



Hiart Velazquez
2002-12-16
Zorionak!
Musutxubek polito-
ri!
Onar eta etxekuen
partez.



500 EUROko billetea
Urtarrilean urtebete.
Zorionak maittia!
Aspaldian ez zaitut ikusi. Beste batekin
ikusit zintudan baina berehala maitemindu
nintzen zutaz. Badakit familia ugaria dau-
kazula. Nere etxean badago lekua.
Anbroxio Otxotorenaren partez.

Zorion agurrak

Zer irizten dotsazu?**Aurtengo gabonetan jango dogu mariskorik?****Jon Oñederra**
15 urte Ikaslia

Nere ustetan, kanpotik ekarritako mariskua izango da aurtengoa. Nik ez dakat ohiturarik gabonetan mariskua jateko, eta aurtengoa uste dot, jendiak be gutxiau jango dabela Galiziako jendiantzat kalte handia da, jende asko lan bare geratu dalako.

**Itxaso Cenzual**
14 urte Ikaslia


Nik badakat gabonetan mariskua jateko ohituria bada uste dot aurtengoa gutxiau jango dotela. Aurtengoa gabonetan jendiak marisko gutxiau jango dau. Politikuen jokabidea ez jata zuzena iruditxu.

**Teo Ruiz-**
44 urte- Kamio gidaria

Oso txarto iruditzen jata galizian pasau dana. Gobernuak daka pasau danan kulpia. Ez dot uste hala ta be, gabonetan eraginik eukiko dabenik honek. Izan be, mariskua kanpotik ekarriko dabe.

**Rosi Gonzalez**
58 urte Etxekoandria

Ikaragarria iruditzen jata hor pasatzen diharduana. Ez dago eskubiderik holako gauzak eitteko.

**Teodoro Martin Lopez**
70 urte Jubilatua

Galiziako kostaldian pasau dana, etxata gustau euki daben deskuiduagaittik. Uste dot kontu honetarako prestakuntza gehixau euki biharko zala eta gizatasunari gehixau begiratu bihar jakola. Ez dot uste dot gabonetan jango dan mariskua kanpokua izango danik, galiziakuakin konfiantza gutxi eukiko dabelako jendiak.

**Marifran Aizpuru**
?¿urte Etxekoandria

Disparate bat da hor pasatzen ari dana eta zoritxarrez ez dao gure eskuetan. Nere ustez oso gaizki jokatuta dabe kasu honetan. Euskal Herrira be arriskuan dao, ia zela erantzuten dotsaun egoerari danok alkartuta. Gabonetako mariskua ez, hemen dauan arazua da, urte mordo bat biharko diala kostaldia berreskuratzeko.



SAN ANDRES
Iturgintza

Iturgintza, Gasa, eta Berogailuak
Sukaldeak eta bainuak

Erreal kalea 2 behea
Tfnoa 943 75 16 46

Urte berri on!!



MENDIZABAL

OKINDEGIA
Gabon zoriontsuak!!

Halebarren,10
Telefonoa 943 75 20 91
Baltegieta, 6
Telefonoa 943 75 13 99
SORALUZE

Presan aurkitu zuten gorpua



Joan zen abenduaren 14an aurkitu zuten Ibarrolako presan, Anjel Urrutia, "Mondragon" gaitzizenez ezagunagoa zen 66 urteko plaentxiarraren gorpua. Anjel ostegunetik zegoen desagertuta eta Sagar Erreka auzotik gora zijoala ikusi zuen pertsona baten testigantzak bideratu zituen bilaketa lanak eremu

horretara. Larunbat goizean Anjelen bila atera zen bolondres talde batek presatik hurbil zegoen erreka zuloan aurkitu zuen karterak ohartarazi zituen denak gorpua inguruan izan zitekeela. Ertzantzari deitu ostean, buzeadoreek aurkitu zuten Anjelen gorpua zapatu eguerdiko 12:20an. Ertzantzak jakinarazi digunez, oraindik zabalik jarraitzen du ikerketak eta ez dago heriotzaren zergaitien argibide zehatzik.

Heriotza honez gain, joan zen azaroaren 24an auto batek kalebarrenen harrapatuta Dorotea Goikoetxea 78 urteko andreari heriotza eragin zion zorritzarreko istripua ere aipatu beharrekoa da.

Soraluze 29. herri aberatsena da Gipuzkoan

Foru Aldundiko Ogasun sailak kaleratutako 2000. urteko Gizpuzkoako Errenta Aitorpenaren datuen inguruko azterketaren arabera, Soraluze 29. postuan dago aberastasun mailan, 13.990 euroko errenta per kapitarekin. Gipuzkoako batezbestekoa 15.356 eurokoa da, Soraluzekoa baino 1.366 euro altuagoa.

Eskualdeka, Debabarrena hirugarren 4. postuan dago 14.747 euroko batzbestekoarekin, Donostia, Deba Goiena eta Urola Kostaren atzetik eta Goierri, Tolosaldea eta Bidasoako eskualdearekin parekatuta.

Aralar alderdiaren aurkezpena

Azaroaren 18an Aralar alderdiko kide diren Juan Martin Elexpuru eta Alberto Merinok alderdi honen aurkezpena egin zuten Kiroldegian. Aurkezpenean 15 bat lagun izan ziren. Elexpuru eta Merinok "Batasunak ezker abertzalea suizidio politiko batera zeramala" aipatu zuten Aralar alderdi moduan egituratzearren arrazoitzat. Bestalde, ETari su etena eskatzen dio Aralarrek, "gaur egun, Euskal Herriaren askatasunerako borrokan, aldeko baino kontrako eragin handiagoa lortzen du"elako borroka armatuak, gizar-tearen atxikimentua galduz.



Ez da Teknikerrekin hitzarmenik gauzatu

Udalak jakinarazi duenez, bertan behera gelditu da Soraluzeko enpresen formaziorako Teknikerrekin hitzartekoa zen hitzarmena. 37 Enpresetatik 5ek besterik ez zuten eman baiezkua eta kopuru horrekin ezinezkoa gertatu da egitasmoa garatzea.

Juan Mari
Arraindegia

Eguneroko arraina eta konjelatuak

Merkatu Plaza
20590 Soraluze
Tfnoa 943 75 24 40
Partikularra 943 74 03 69

Gabon zorionsuak!!

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:

kutxa

zuri esker
gracias a ti

Urte berri on!!

Javier Alonso Zelaieta
Hortz klinika

Urte berri on!!

Mediku estomatologoa
434 zenb. kol.

Atxuri, 1 - 1. eskuma
Tfnoa 943 75 16 13

BELARRAK

LORADENDA ETA BELARDENDA

EROSKETAK ETXERA DARAMATZAGU

Gabon zorionsuak!!

Santa Ana, 2 behea
Tel.: 943 75 30 11
Eskukoa telefnoa: 646 43 90 40
20.590 SORALUZE

Gizarte eragile ordezkari batzuek “salbuespen egoera” salatu dute

Azken bi asteotan, “Euskal Herriaren salbuespen egoera” salatzeko hainbat ekimen burutu dira herrian. Abenduaren 11an herriko hainbat gizarte eragiletako ordezkariak, idatzi bat irakurri zuten Udaletxepean egin zuten prentsaurrekoan. Idatzi horretan “Estatu Espainol eta Farntsesak euskara, kultura, hezkuntza, langilegoa, Batasuna eta pertsonen” kontra egindako eraso eta torturak salatzen ziren, “erasoei erantzuteko ordua dela” azpimarratuz. Gizarte eragileek gizartea abenduaren 13an Udaletxean egin zen itxialdian eta abenduaren 19an egin zen “Protesta Egun Nazionalen” parte hartzera gonbidatzen zuen deialdia azaldu zuten. Abenduaren 19ko lan uztea zela eta, komertzio eta enpresa batzuen ardura-



dunekin bildu ostean eguerdian 12:00etatik 13:00era ixteko erabakia hartu zuten zenbaitzuek. Lan uztearen jarraipena dextentekoa izan zen komertzioetan baina oso txikia lantegietan. Egunean zehar elkarretaratze bi egin ziren plaza berrian “Euskal Herria salbuespen egoeran” lemapean.

Emakumeenganako indarkeriaren aurkako bateratzea



Azaroaren 26an egin zen Emakunde emakumeen aurkako indarkeria salatzeko eta baztertzeko deitutako elkarretaratzea. Udal Batzarrak azaroaren

4an aho batez emakumeen eskubideen aldeko politika aktibo bat egiteko onarpenari jarraituz, Udaleko alderdi guztietako ordezkariak izan ziren bertan. Guztira 100en bat herritar batu ziren plazan, pentsamentu eta ideologia ezberdinetako herritarrak, emakume eta gizonak, edade danetakuak, emakumeek jasaten dituzten indarkeria eta tratu txarrak gaitzetsi nahian. Sinbolo gisa lazo zuri bat irudikatzen zuen pinak ere banatu ziren.

Horrelako kanpainak gizartea kontzientziatu eta emakumeen aurkako indarkeria guztiz baztertzeko lortzea dute helburu. Oraindik ere kasu gehiegi gertatzen dira eta lan asko dago egiteko.

Polikiroldegia urtarrilean zabalduko da



Udaletik jakinarazi digutenez, urtarrilean zabalduko dira Kiroldegiko frontoia eta igerilekua. Igerilekuko azpiegituran aurkitu diren akatsek 102.000 euroko gastu gehigarria eragin dute eta arazo honek atzeratu ditu kiroldegia zabaltzeko aurrikusitako datak.

Ikastetxeko lanak hastear daude



Mertxe Epelde Plaentxi Ikastetxeko zuzendariak jakinarazi digunez, dagoeneko hasi dira Olako Amezuaneko lantegira aldatzeko mudantza lanekin. Urtarrilean hasiko omen dira ikastetxea eraberritzeko lanak eta beraz oportunitate bueltan Amezuaneko lantegian emango dituzte eskolak. Ikastetxeko lanek irauten duten bitartean gaztetxoek ezik (hauek frontoiko haur hezkuntzako eraikinera joango dira eta), besteak ikastetxe-lantegi berrian hartu beharko dituzte eskolak. Lanek urtebete irautea aurrikusitakoa da.

ITUR iturgintza

Iturgintza, Gasa
Berogailuak
Sukaldeak eta Bañuak

Santa Ana, 20 Behea
Telefonoa: 943 75 12 41

Sakeleko telefonoa: 639 17 96 96



Gabon
zorionsuak!!

Gabon zorionsuak!!

HNOS. BENITO
ANAIK

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

Ajenda 21; ingurugiroarekiko kezka



Europatik garapen jasangarrirako bultzatzen ari diren politikak eraginda, "ekonomiaren, gizarte arloaren eta ingurumenaren arteko oreka lortzeko" helburuarekin, Debabarreneko Garapen Elkarte den Debegesa erakundeak kudeatuta martxan da dagoeneko Debabarreneko Ajenda 21 egitasmoa.

Eskualdeko Ajenda 21aren helburu zehaztetako batzuk honako hauek dira: "herritarren bizi kalitatea hobetzea (airearen kalitatea, aisialdirako eremuak, zarata...), eskualdean eta udaletan ingurumen politikak garatzea, herritarrak kontsumoaz kontzientziatzea (ura, energia), natura baliabideak mantentzea eta hobetzea...

Gizartaren partehartzea bultzatzeko arlo ezberdinetan dihardute lanean; Sorraluzen ere gauzatzen ari dira ekimenotako batzuk:

- Azaroan hasita Istitutuan ingurugiro eta hirigintza gaiak lantzen dihardute.

- Abenduaren 5ean inkestak bildu ziren Udaletxepean.

- Abenduaren Eskualdeko foroa sortu zen Eibarren eta bertan parte hartu zuten Sorraluzeko hainbat elkarte eta pertsonak. Ekimen honek herritarren eritzia kontuan hartzeko helburua badu ere, ikusgai daude oraindik zer nolako garapena eta eragina izango duen gero benetako erabaki garrantzitsuetan.

Abenduaren 28an ilargia eroriko da

Plaza Zaharreko kale kantoian zegoen aitona zahar batek abenduaren 28an ilargia eroriko dela iragarri du. Ez du non eroriko den zehaztu baina ez omen dugu gauaren erdian berriz ilargirik ikusiko! Hemendik aurrera gaua iluna izango omen da, ilargia erortzen denean izarrak ere alde egingo omen dute eta.

NASA erakundeak informazio iturriek honela adierazi dute: "Plaza Zaharreko kale kantoiko aitona esan duena ipuin hutsa da", gezurretan dabilela alegia. Plaza Zaharreko kale kantoiko aitona eragaria jo dugu korrika baina jadanik ez zegoen.

28 Gauean begiratu zerurantz ia ilargia erortzen den eta izarrek han jarraitzen duten, 29an ere begiratu, 30an ere bai eta ez utzi begiratzeari ilargia erortzen ikusi arte.

Hau ez da egia, baina gezurra ere ez. Begiratu gauero, ez izan inuxentea!

Alkatearen erantzuna Udaleko langile batzordeari

Azaroan, Udaleko langileek Udaleko langileen lan baldintzak eta soldatak negoziazio bitartez adostu beharra zegoela eta 2003rako %2 eta 3 arteko igoera lotsagarritzat jotzen zutela adierazi zioten Udalari, Euskal Autonomi Elkarte KPIa % 3,4 koa dela eta 2001ean ahotan dituzten alderdiek euren zinegotziendako %20tik gorako igoerak onartu zituztela argudiatuz. Honen aurrean Alberto Sudupe alkateak honako idatzia helarazi digu:

"Aldizkari honen azken alean Udal Administrazioaren lan-hitzar-menari buruz argitaratu zen idatziari dagokionean, zehaztaperen edo aklarazio bat egin beharrean nago. Adierazi nahi dut Sorraluzeko Udalean diharduten guztiek langileek, zinegotziek eta Alkateak soldata igoera berbera izan dutela 2002. urtean, %3a hain zuzen ere, EUDELEK (Euskal Herriko Udalen Elkarte) onartu zuenaren bidetik.

Alberto Sudupe Oregi
Alkatea."

Sazia pareko lurjauzia kendu dute



Sazia parean azaroan erori zen lurjauzia erretiratu dute dagoeneko.

Telefona 75 24 09

ARRANO

tabernia

Urte berri on!!

ETORRI ETA GOZATU

EUSKAL PRESO, DEPORTATU ETA EXILIATUAK

etxera

 **PASCUAL CHURRUGA, s.a.**

Hotzian eta beruan jotako tornilluak

Gabon zoriontsuak!!

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxe 943752461
E-mail: general@pascualchurruga.com
Errekalde 21 20590 SORALUZE

OLENTZERO ETA MARI DOMINGINEN KONTAKIZUNA

Behin batean, orain dela urte asko eta asko, bazen Mari Domingi izeneko emakume behartsu bat.

Herritik kanpora zegoen txabola zahar-zahar batean bizi zen Mari Domingi eta gona zahar bat besterik ez zeukan janzteko, gona zahar zarpail bat dena adabakiz beteta. Mari Domingi hain behartsua zenez, baztertu egiten zuten guztiek, jendeari lotsa ematen baitzion harekin ibiltzeak. Herriko aberats harropuzteak burula egiten zioten:

- Mari Domingi mingulina, arlote zikina!

Mari Domingiri mina ematen zioten burula horiek.

- Pobrea izatea ez da lotsapentsatzen zuen- okerragoa da bihotz-gabea eta harropuzta izatea.

- Pobrea izatea ez da lotsapentsatzen zuen- okerragoa da bihotz-gabea eta harropuzta izatea.

Mari Domingi bihotz handiko emakumea zen, prestua eta langilea. Neguan ikatza partitzen ibiltzen zen etxez etxe, eta berak ezer ez bazuen ere, bakarrik bizi



Olentzero eta Mari Domingin mendiko etxearen atarian opariak zakuan hartuta.

ziren aiton-amona behartsuei doan ematen zien ikatz pixka bat.

- Tori ikatz puska hauek. Ez da asko, baina etxea zertxobait epelduko dizuete behintzat.

- Eskerrik asko Mari Domingi-esaten zioten orduan aiton-amonek-.

Behin, abenduko gau hotz batean, ogi zati gogor bat afaldu eta ohera sartu zen Mari Domingi. Tripa zorriek, ordea, kirri-karra egiten zioten eta goseak ez zion lo egiten uzten.

Mari Domingi, Mari Domingi!. Olentzero naiz-esan zion ahotsak-. Mesede bat eskatu nahi dizut:

Kostata baina loak hartu zuen halako batean. Orduan ahots bat entzun zuen.

- Mari Domingi, Mari Domingi!. Olentzero naiz-esan zion ahotsak-. Mesede bat eskatu nahi dizut: aurki gabonak dira eta haurrei opariak banatzera joango

Lonbide

taberna *Urte berri on!!*

**Pintxoak
Ardoak, kafeak eta likoreak**

**Errabal kalea, 9
Tfnoa 943 75 14 07**



Lakuesta

Optika 

Ikusmen arazoaren frogak eta argibideak

Argazkiak errebelatzen ditugu

Santa Ana, 22 C- behea

20590 Soraluze

Gabon zoriontsuak!! Tfnoa 943 75 30 59



naizela iragarri behar duzu herrian.

Mari Domingi kolpetik esnatu zen, ahotsari hitz egiten zion:

- Aizu, aizuu...

Baina txabolan bera bakarrik zegoen. Korrika ohetik altxa eta txabolako atea zabaldu zuen. Mendi gain batean gizon bat ikusi zuen urruntzen. Olentzero zen eta agur egin zion besoa altxatuta.

- Orduan egia da!. Ez nengilena ametsetan. Olentzero etorri zait mesede bat eskatzera. Nori eta niri!...

Gau hartan ezin izan zuen lorik egin. Egunsentiaren zain egon zen urduri-urduri. Eguna zabaldu zuenean, bere gona zarpaila jantzi eta herriko kaleetan berri ona zabaltzen hasi zen.

- Entzun, entzun guztiok!. Aurki gabonak dira eta Olentzero etorriko da opariak banatzera. Olentzerok berak esan dit berria zabaltzeko.

Baina herriko jende harroputzak ez zion sinetsi eta burula egin zion.

- Ja, ja, ja!. Entzun duzue hori?. Olentzerok Mari Domingi aukeratu omen du mandatari izateko!. Eta guk sinetsiko dugulakoan! -esan zuen batek mespretxuz-.

- Olentzerok halako mandatari xaxtarra bidaltzen badu, zer opari ekarriko ote dizkigu -erantsi zuen beste batek-.

Mari Domingik, ordea, ez zien kasurik egiten burula haiei eta txintxo-txintxo bete zuen Olent-

zeroren esana.

Gabon gaua heldu zenean, beste askotan bezala, ogi zati gogor bat janda oheratu zen Mari Domingi. Baina orduan ere tripa zorriek kirri-karra egiten zioten eta goseak ez zion lo egiten uzten.

Orduan, norbaitek atea jo zuen. Mari Domingi ohetik jaiki eta atea zabaldu zuen Atean, Olentzero zegoen opariz betetako zaku handi bat zekarren bozkarreran eta kapoi erre bat eskuan.

- Gabon, Mari Domingi -esan

- Hala, bien artean banatu zizkieten opariak txintxo portatu ziren haurrei. Txintxo portatu ez zirenei eta harroputzei, berriz, ikatza jarri zieten.

zion Olentzerok- Badakit txintxo-txintxo bete duzula nik eskatutakoa eta eskerrak ematera nator. Nahi al duzu nirekin afaldu gaur?.

Mari Domingik baietz esan zion eta gau hartan kapoi eder bat afaldu zuen Olentzerorekin.

Bapo afaldu zutenean, hala esan zuen Olentzerok.

- Aizu, nik orain opari hauek banatu behar dizkiet haurrei. Nahi al duzu nerekin etorri?.

- Bai horixe, gustura asko gainera -erantzun zion Mari Domingik.

- Hala, bien artean banatu zizkieten opariak txintxo portatu ziren haurrei. Txintxo portatu ez zirenei eta harroputzei, berriz, ikatza jarri zieten.

- Lana bukatu zutenean, Olentzerok opari bat eman zion Mari Domingiri paperean bilduta.

- Hau niretzat? -esan zuen pozak zoritzen Mari Domingik-.

- Bai zuretzat, herri honetan zeu zarelako pertsonarik jatorrena eta txintxoena eta...eta politena ere bai -esan zion Olentzerok pixka bat lotsatuta.

Oparia ikusi zuenean, saltoka hasi zen Mari Domingi. Soineko dotore-dotore bat zen. Pozaren pozez musu bat eman zion Olentzerori.

Olentzero, gorri-gorri jarri zen lotsatuta. Eta orduan esanb zion:

- Aizu, Mari Domingi, ni bakarrik bizi naiz mendian eta zu ere bakarrik bizi zarenez, nik pentsatu dut...pentsatu dut -hasi zen Olentzero hitz totelka.

- Zer eskatu nahi didazu? Biok elkarrekin bizitzea? -esan zion Mari Domingik-.

- Bai horixe!. Hain zara jatorra eta atsegina, eta...eta polita! -esan zion Olentzerok gero eta urduriago-.

Mari Dominginek musu eman zion berriro eta baietz esan zion. Eta Mari Domingi eta Olentzero eskutik helduta txoriak baino kontentago joan ziren mendira, Olentzeroren etxera. Eta hantxe bizi dira pozik eta zoriontsu. Urtero gabonak etortzen direnean, ordea, herrira jaisten dira, eta opari politik egiten dizkiote txintxo portatu diren haurrei. Eta gaizki portatu direnei?. A! Gaizki portatu direnei, ikatza.



Kiru Muntaiak

Blas Elizburu Kortabarria
Sukalde, enpotratu
eta tarima flotanteen instalazioa eta salmenta.

Errekaldia, 30
Tfnoa 943 75 13 12
Eskuko tfnoa 670 05 18 20

Urte berri on!!



S.A. Industriak

Gabon zoriontsuak!!

Eskulanetarako tresnak

Industrialadea, 17 - 20590 Soraluze
Tlfonoa: 943 75 20 00 Faxes: 943 75 19 80 E-maila: fer@nexo.es

Osasuntsu mantentzeko sekretuak Itxaropenan

Itxaropena elkarteak antolatutako "Bizimodu osasuntsua eta bizi kalitatea garatzeko programa" ren barruan Ana Fernandez Donostiar psikologoak hitzaldi sorta bat eskeini du azken hilabeteotan Itxaropenako egoitzan bertan. Programaren helburuen artean bizi ohitura osasuntsuak barneratu eta bizi kalitatea hobetzeko bideak ikastearena izan da nagusia baina jende nagusiaren arteko harremanak eta ekimen sozio-kulturalak sustatzeko eragitea ere oso garrantzitsua izan da.

Taldetan banatuta, eguneroko bizimoduan eragiten diguten gaien inguruan hitzegi dute; zahartzaroak dakartzan aldaketa fisiologikoez, elikaduraz, sexualitateaz...eta beste gai askotaz. Gai hauek landu ostean zahartzaro osasuntsu bat izateko baliagarri gerta daitezkeen honako ondorioak atera dituzte:

1. Ez da berandu jeiki behar. 2. Garbitasuna eta kanpoko itxura zaindu behar da. 3. Lagunak eta senitartekoei bi-



Emakumezkoak dira horrelako iastaroetara gehien animatzen direnak eta horregatik..

sitat egin etxean bakartu gabe. 4. Familiako bizitzan parte hartu. 5. Munduan parte hartu, jendearekin hitzegi eta harremanak izan. 6. Gizartearen aldaketak onartu, ados egon ez arren. 7. Ariketa fisikoak egin, paseatu. 8. Ez obsesionatu gau guztian lo egin beharrek, ahalegindu gauean atsedean hartzen. 9. Erabili denbora gauza berriak ikasteko ekimen kulturaletan parte hartuz. 10. Ez ahaztu txertaketa kanpainak. 11. Irten

oporretara. 12. Ahalegindu besteek diotena entzuten eta ulertzen. 13. Siesta bai, baina motza. 14. Ez jetsi sexu harremanen maiztasuna eta sekula ez baztertu erabat. 15. Sahiestu alkohola eta tabakoa. 16. Mantendu aktibo. Lagun berriak egin eta ez baztertu gizartearengandik. 17. Izan zu zeu. Garrantzitsua goa da zertarako bizi garen jakitea bizi-rik irautea baino.

Madrilgo hilketari gaitzezpena



Joan zen asteazkenean, bi elkarretaratze egin ziren herrian, ETAK Madrilan asteartean hil zuen Antonio Molina Guardia Zibilaren heriotza salatze-ko. Elkarretaratzetako bat, eguerdiko 12.00etan egin zen Udaleko langileak buru zirela eta iluntziko 20:00etan

Gesto Por la Paz / Bakearen Aldeko Koordinadorak deituta egin zen bestea. Hontaz gainera, asteazkenean egin zen Udal Batzarrean, minutu bateko ixilunea gorde zen Guardia Zibilaren heriotzaren gaitzespen modura.

Eusko Jaurlaritzak Gerra Zibileko hilobi komunak ikertu eta bilatzeko zerbitzu bat eskainiko du

Espainiako Gerra Zibilaren ondorioz sortutako hilobi komunak ikerketa eta bilaketarako Sailarteko Batzordearen enkarguz, Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen eta Jutziziarikoko Harremanetarako zuzendaritzak kasu horien inguruko informazioa emateko eta datuak jasotzeko telefono publiko bat jarri du herritarren eskura. Informazio telefonoa: 945 019 105 da (ordutegia: 10.00-13.00 eta 15.00-17.00).



Limpiezas

Trejo, S.L.

Gabon zoriontsuak!!

Rekalde, 30 behea
Tel.: 943 75 25 57
Faxa: 943 75 25 56
20.590 SORALUZE

Limpiezas industriales

Goizeko 6:30-etatik aurrera zabalik!!

Gosarixak eta pintxo goxo goxuak !!



Errabal kalea, 15 Tfnoa 943 75 18 34

Gabon zoriontsuak!!

PIL-PILEAN ; HERRIKO BERRI

MAITASUNEZ ETA EUSKERAZ!

metsa egi bihurtu da. 2.002. Urtean euskarazko aldizkaria kaleratu dugu hamabostero Soraluze eta soraluzetarron eguneroko

A

bizimoduan interesekoak diren berri eta informazioak zabaldu ditugu lau haizetara. 20 Ale izan dira guztira; maitasunez eta euskeraz idatziak, etorkizunean gure Plaentxiaren 2002ko historiaren berri emango dutenak:



Urtarrila / 42. Alea Udaleko Ogizate Zerbitzua

Zerbitzuaren nondik norakoak aztertu genituen. Sortzen zaizkigun arazoak aurre egiten laguntzeko zerbitzu bat dela jakin genuen, guztion eskura dagoen zerbitzu bat.



Otsaila / 43. Alea Argentinako Krisia

Argentinako krisiak goia jo zue-nean, "cacerolada" artean, Argentinan bizi diren Plaentxiarren eta Argentinatik Plaentxiara etorri diren familien testigantzak jaso genituen.



Otsaila / 44. Alea Udaleko Aurrekontuak

Udalak 2.002. urterako prestatu zituen eta soraluzetarron eguneroko jardunean horrenbesteko garrantzia duten aurrekontuen berri eman genuen zehaztasunez.



Martxoa / 45. Alea Emakumeak Soziedadeetan

Soraluzeko soziedadeetan emakumeek sozio egiteko dituzten aukerak eta eragozpenak agerian utzi genituen. Era guztietako iritziak daudela ikusi genuen.



Martxoa-Apirila / 46. Alea KZ Gunea

Herrian KZgunea zabaltzeko zegoen asmoaren berri eman genuen. Internetak gure bizitzan izango duen eraginaz eta eskeintzen dizkigun aukerez ere berba egin genuen.



Apirila / 47. Alea Zuhaitz mota autoktonoak

Soraluzeko lurretan zuhaitz mota autoktonoak bizi duten egoera larriaren berri eman genuen. Roke Akizuren azterketaren emaitzen frogatu zuten hori.



AINITZE O.



BOSCO G.



DOMENTX U.



IÑIGO A.



UBANE M.



ENARA A.



AITOR U.



ANE Y.



MAIDER G.



MARI KARMEN O.



NIKOLAS M.



EGUZKIÑE A.



MIKEL S.



JONE A.



JON B.




GORKA P.

16 KOLABORATZAILE

Hauek dira urtean zehar aldizkariari eritzi ikutua eman dioten Plaentxiarrak. Emakumezkoak eta gizonezkoak, gazteak eta nagusitxoagoak, ideologia guztietakoak,

euren hitza eta eritzia eskeini digutenak!



Apirila / 48. Alea Udaleko Euskara Teknikaria

Udaleko Euskara Teknikariarekin Soraluzen euskara izaten diharduen garapenaren inguruan berba egin genuen. Euskara motel xamar ote doan susmoa hartu zion.



Maiatza / 49. Alea

ETXEBIZITZEN EGOERA SORALUZEN

Soraluzek etxebizitzaren arloan eskeintzen dituen aukerak aztertu genituen. Etxebizitza berri eta zaharren prezioak eta baldintzak ezagutu genituen, alokairukorik ia ez dagoela ere ikusi genuen.



Maiatza / 50. Alea

Haize berriak Musika Eskolan

50. Alea zela eta geure burua zoriontzeaz gain, Soraluzeko Musika Eskolan izandako aldaketa eta berrikuntzen berri eman genizuen. Eskolaren garai berri baten hasiera.



Ekaina / 51. Alea

Baserrian ekaina, lana nahi aina

Uda partean baserrian egiten den bizimodua aztertu genuen. Modu literario baten baserrian udako lan egun batek eman dezakeenaz amets egin genuen.



Ekaina / 52. Alea

Ezoziko Baseliza Berria

Ezoziko basilizaren egindako eraberritze lanen berri emateaz gain, Soraluzeko abade ohiak santuen jatorriaren nondik norakoak azaldu zizkigun.



Uztaila / 53. Alea

Ezoziko Ama Abesbatza

Ezoziko Ama Abesbatzaren 10. Urteurreneko ospakizunen berri eman genuen. Bide batez, Soraluzen kantuaren inguruan dagoen mugimendua ere ezagutu genuen.



Ugaraxo eta Jaurti

Ikastetxeko eta Istitutuko Aldizkariak *Ugaraxo eta Jaurti* gazte-aldizkariak kaleratu ditugu gaztetxoak euskaraz irakurtzen eta idazten zaitezko helburuarekin.

Uztaila / Jaietako gehigarria Santa Ana Jaixak

2002. Urteko jaietako egitarau guztiak batu zituen gehigarria atera genuen. Umorez eta irudiz osatuta, jaietako momenturik goxoenak agertu genituen bertan.



Iraila / 54. Alea Batasuna legez kanpo

Batasunaren ilegalizazioa zela eta, Batasunako ordezkariak elkarrizketatu genituen. Gainontzeko alderdien balorazioak ere bildu genituen hurrengo aleetan.



Iraila / 55. Alea Erresidentzia beteta

Erresidentziara bisita eginaz, bertan bizi diren aiton amonen eta langileen esanak jaso genituen. Plaza guztiak beteta daudela ere jakin genuen bide batez.



Urria / 56. Alea Ekuatoriar komunitatea

Soraluzen sortu berri den Ekuatoriar komunitatea ezagutu nahian, etorkin familietako batekin izan ginen. Euren sentipen eta asmoak ezagutu genituen. Aurkezpen "ofiziala" Soraluzeren aurrean.



Urria / 57. Alea Eremu megalitiarra

Aranzadi elkarteak eremu megalitiarrean egindako seinalizazio lanak agertzeaz gain, mendi gainean dugun altxorren jatorriaz ere jardun genuen.



Azaroa / 58. Alea Gaztañerre Azoka

Gaztañerre azokaren 7. Edizioarekin batera, egun honek hartu duen izaera bereziaz hitz egin ziguten ageriko eta ezkutuko protagonista izaten diren Soraluzetar batzuek.



Azaroa / 59. Alea Gaztelupeko Hotsak

Iraganaz, orainaz eta etorkizunaz hitz egin genuen Gaztelupeko Hotsak disketxeko kideekin eta Gaztelupeko balkoira atera genituen behetik gorako argazki bat egiteko.



ETA GAINERA . . .

Aldizkariak gainera Pil-pilean Kultura Elkarteak beste hamaika alor landu ditu 2002. urtean zehar.

Soraluzeri bizia eman eta herri izaera sendotzea izan dira gure helburuak.

Eta noski, guzti hori euskeraz egin dugu, etorkizuna halaxe marraztu nahi dugulako, euskeraz eta maitasunez, zurekin batera.

...Kulturgintza; SORALUZE KULTURAZ JAZTEN !

Kultura arloan, aurtien ere ekimen ugari eta askotarikoak burutu ditu Pil-pileanek; Sagardotegira eta Sorginen Laratzera irteera, Sagardo Eguna, San Juan Sua, Jaietako Ekintzak, Bertso Afaria eta bertso paper lehiaketa, Olentzero eta Mari Domiginen etorrera, Soraluzeko Baserrien Gidalibururako datu bilketa lanak... Udalarekin eta herriko gizarte eragileekin bilatu dugun



elkarlaneko jardunak emaitza goxoak eman ditu. Gure baliabide tekniko eta pertsonalak Soraluzeko kultura mugimenduaren zerbitzura jarri ditugu eta beti laguntasun jarrera hori azaldu izanak bihotz asko zabaldu dizkigu Soraluzetarren artean; horixe da hain zuzen ere gure jardunaren arrakastaren arrazoi nagusienetako bat.

...Euskalgintza; EUSKARARI BIDEA EGITEN!

Landu dugun beste alorretako bat euskalgintza izan da. Hemen ere elkarlana izan da nagusi eta astiro bada ere bide luzea egin dugu azkenean. AEK euskaltegiarekin eta Euskal Herrian Euskarazekin batera, euskalgintzaren asteleheneroko bilera dinamika iraunkor bat osatzea lortu dugu, Udaleko teknikari eta ikastetxeetako zuzendariekin hamabostero egiten den Euskararen Aholku Batzordearen bilerak ere fruitu

bikainak eman ditu. Laguntasunezko eta errespetuzko giroan; Bai Euskarari plan estrategikoaren eta Biziberritze Planaren uztartzea eta garapena, Kilometro eta Nafarroa Oinezarako autobusak eta Gaztetxoendako irteerak antolatzea, Badihardugu taldearendako laguntza ematea eta beste mila lan aurrera ateratzea ez da horren neketsua gertatu.



...Arrate Irratiko Albistegia KALITATEZKOA ETA NEURTUA!



Arrate Irratiaren bitartez Soraluzeko berriak zabaltzearen aukera sortu zitzaigunean ezin izan genion ezetzirik esan. Ia urtebete egin dugu asteartero asteartero irrati bidez Soraluzeko berriak zabaltzen eta gustora egoteko moduko emaitza lortu dugu. Albistegi berezi bat egitea lortu dugu, kalitatezkoa, albistek hurbiltasunez eta maitasunez agertzen dituenak, euskarazkoa, eta beste inork ez bezala albistegia amaitu aurre-

tik albistea bertso galbaean pasarazten duena. Entzuleak eskertu egiten du jarrera hori eta ehundaka plaentxiarrek leialtasunez jarraitzen dute Pil-pilean albistegia astero astero. Badakizue, herriko notizia, txutxumutxu eta eritzien berri jakin edo eman nahi baldin baduzue, asteartero asteartero 12:45 aldera piztu irratia FM ko 93.6 frekuentzian eta hantxe izan gaituzu: "Eguerdition entzule...".

ESKERRAK

**Elkarteko Bazkideoi,
Aldizkariko Iragarleoi,
Soraluzeko Udalari eta
Soraluzetar
guztioi.**



PIL-PILEAN 2002

**Zeuei eskerrak!
Zeuekin!
zeuendako!**

Galizako kostaldetik, María González

“Herritarren aurpegian fuela antzeman dezaket islaturik”

Prestige petroliountziak eragindako kalteak bertatik bertara ezagutzen ditu Mariak. Cangas do Morrazokoa da bera, Cies irletatik oso gertu dagoen herrikoa, eta telefono bitartez egindako elkarrizketa honetan (abenduaren 17an egin genion), barru-barrutik erantzun digu, amorruez eta nahigabez.

-Zein egoera bizi duzue Cangasen momentu honetan?

Momentu honetan egoera deskribatzen duen hitza ziurgabetasuna da, fuela irtetzen ari da etengabe. Hemendik oso gertu mantxa zabal bat daukagu eta oraindik bigarren marearen kalteak jasaten ari gara; orain hondartzetara fuel-oil mantxatxo borobil trinkoak (gailetak) heltzen dira.

-Nola dago jendea?

Lur jota. Latza da gaur garbitutako inguru berrar berriz galipotak estalia ikustea. Orain gainera jendearen etsipenari nekea eta fuelak eragindako osasun arazoak gehitu zaizkio: arnasketa arazokak, zorabioak eta botagura. Sendagileek koipeak ez hartzea gomendatu dute, esnea bezalako produktuak, adibidez, eta ezer jan-edan aurretik ur gargarak egitea komeni da.

Iruditzen zait jendeak beldur gutxiegi diola osasun arazo posiblei. Batzuk, marinelek batez ere, ordu larregi ematen dituzte pozoiarekin kontaktuan eta medikuek gaixotasun larriak aipatzen dituzte.

-Nola eragiten dio fuelak ingurugiroari?

Galipota oso kaltegarria da naturarentzat, deuseztu ezin den pozoia. Tonak eta tonak heltzen dira egunero gure hondartzetara eta haitz bitarte guztietatik sartzen da. Hondar azpian metro erdiko sakonerara heldu daiteke; Zies irletan adibidez dagoeneko itsasbarrena hartu du. Hondamendi ekologikoa da, eta oraindik ez dakigu zenbaterainokoa.

- Zer sentimendu daukazu?

Frustrazioa sentitzen dut. Nere herria aldatu egin da, eta ez dakit konparazioa egokia den, zorionekoa naiz eta horrelakorik bizi izan ez dudalako, baina nik gerra baten tankera hartzen diot, benetakoa hondamendi batena. Herritarren aurpegian fuela antzeman dezaket islaturik, eta hori ikaragarria da.



María Cies irletan. Atzekaldean Morrazoko penintsula, Cabo Home

Jendeak fuelari aurre egiteko etxetik eramaten du erabilgarria den oro: koltxoiak, edredoiak, telak etab.

Hala ere Galiziarren artean ezjakintasun handia dagoela susmatzen dut, eta nire herrian bertan badago jentea paseora eta ikustera bakarrik gerturatzen dena. Boluntario gailego asko dago baina kopuru hau hutsaren hurrengo da Galiziako biztanleria kontutan hartzen badugu. Hemen lanean ari direnak marinela dira batez ere.

“Galipota oso kaltegarria da naturarentzat, deuseztu ezin den pozoia”.

-Oso kritikatu izan da Gobernuaren jokabidea, zer esan dezakezu hortaz?

Barkamenak eskatu dituzte, hori egia da, baina utzikeria erabatekoa izan da, bai Xuntarena eta bai gobernuarena; alde batetik informazio falta eta gezurrak, baina larriagoa dena: ez dute mediorik jarri boluntarioei laguntzeko. Marinelek beren itsasontzi eta tresnekin egin behar izan diote aurre galipotari, ez dute gobernuaren aldetik laguntzarik jaso, eta guzti hau gobernuak ez dute

onartzen. Ez dute aitortzen abandono honen erantzule eta errudun direnik.

-Aurreikusten al duzu ondorio politikorik?

Nahiago nuke horrela izango balitz, baina uste dut zoritxarrez ez dela aldataririk izango. Behi eroena gertatu zenean, askok pentsatzen genuen Fragak boterea galduko zuela, baina gehiengo absolutoa lortu zuen. Benetan iruditzen zait Galiziarren arazoa patologikoa dela. Gainera hauteskundeak 3 urte barru dira, eta gobernuak izango du tartetik bere burua zuritzeko.

-Eta etorkizunari begira...

Galera ekonomikoak handiak izango dira eta bizimodua asko aldatuko da zalantzarik gabe. Turismoa hondartzakoa da gehienbat, Benidorrekoa bezalako ez izan arren, zorionez, eta inori ez zaio gustatuko hondartzan etzan eta galipotez zikintzea. Turismo morbosoa ere etorriko da baina ez dut uste diru askorik lagako digunik.

Tamalez, txarrena oraindik iristear dago.

- Muita forza y unha perta moi grande para os galeg@s.

- Eskerrik asko

Musika eta kantua Gabonetan



Gabon garaia dela eta, musika eta kantuarekin lotutako hainbat ekitaldi antolatu dira azken egunotan. Musika Eskolak "Gabon Kontzertua" eskeini

zuen ostegunean elizan eta instrumentu eta ahots denak bildu zituzten urteari amaierako tonu bikaina emanaz, 24an ikasle batzuk Olentzerorekin jardungo badute ere.

Ezoziko Ama Abesbatzak ere, larunbatean eskeini zuen bere emanaldia eta astearteko arratsaldeko mezan ere saioa eskeiniko dute.

Bertso eskolako ikasleak ere, koplakantari aterako dira astelehenean gatzetxoetak eta asteartean baserriz baserri zaharxeagoak.

Sara Nievasek

J. Azpiazu sariketa irabazi du

Sara Nieves plaentxiar gitarrajole gazteak, Donostian jokatu zen Jose Azpiazu musika sariketa ezaguna irabazi zuen azaroaren 24an. Jose Azpiazu musikariari eskeinitako sariketa prestigiosu honetan nazioartetik etorritako musikari gazteek hartzen dute parte. Sarak lehenengo postua lortu zuen bakarkako

saioretan eta Gipuzkoako gitarrajole eta Jose Azpiazuren lanaren interprete onenaren saria eman zioten. Garaipenaren ordainetan, katedratiko frantsez batekin eskolak hartzeko 15 eguneko beka eta gitarra eder bat eman dizkiote opari.

ZORIONAK SARA!

Kubako kontuak

Udaleko Kultura Batzordeak antolatuta Kubaren inguruko bi ekitaldi izango dira urtarrilean. Lehenengoa, argazki erakusketa izango da 14tik 20ra Kiroldegiko Erakusketa Aretoan ikusgai izango dena eta bigarrena, Jose Maria Zabalak eskeinitako ikusentzunezkoa 16an Kiroldegian eskeiniko dena.

Rallyko sarituak



Joan zen larunbatean banatu ziren polikiroldegiko erakusketa aretuan kontrargi argazki taldiak azaruan antolatu zeban rallyxaren sariak.

Irazbazlea, Roberto Madariaga (Zaldibardarra), 2. Carlos Mediavilla (Urretxuerra), 3. Jose Luis Feo (bergararra), Herrikoa; Fernando Oregi.

Durangoko azoka



Gaztelupeko Hotsakeko Ubanek adierazi digunez, oso salmenta onak izan dituzte, batez ere Mikel Urdangarin eta Tapia eta leturiaren azkenengo diskoekin. Pil-pilean Badiharduguko standean egon zen.

Pil-pileanen egutegia salgai



Pil-pilean Kultura Elkartek herrian egiten diren kirol, kultura eta beste arlo batzuetako ekintzen data zehatza biltzen duen egutegia jarriko du salgai. Gainera erreleboan dabilen jendearendako aste bakoiti eta bikoitiak bereizteko sistema baliagarriarekin datoz markatuta. Egutegiak joan zen mendehasierako baserritar familia baten argazkia darama eta dendetan jarriko da salgai urtariletik aurrera.



Gabon zoriontsuak!!



MAPFRE
MAPFRE SORALUZE



JUAN LUIS IBARZABAL ARRIETA

JULIA IBARZABAL ARRIETA

Gabolats, 5 b
Tel.: 943 75 16 58 - 943 75 30 12
Eskuko telefonoa: 649 49 79 59 Faxa: 943 75 16 10
20.590 SORALUZE





CRUZ
ELECTRONICA

Mikel Cruz

Urte berri on!!

ORDENADORE PERTSONALAK
INPRESORAK - INFORMATIKA

Santa Ana, 25
Tel.: 943 75 13 35 Faxa: 943 75 3019
Eskuko telefonoa: 630 35 82 95
20.590 SORALUZE

Gaztetxeko JARDUNALDI KULTURALAK

“Aurten bebai!

Din dan don, din dan don!

Bobilak zubixan, irribarria ezpainetan, dirua poltsikuan... eta ibili munduan! Heldi dira gabonak! Zoriona merkealdixetan Corte Ingleseko 4. solairuan, ez ahaztu zure dosia! Guk ez dogu formula magikorik sartu potetxo baten, baina hurbildu, sartu Gaztetxera, eta sortu zuria. Txapapotez zipriztindutako langostinuak emondako tripakominak osatzeko modu on bat izan leike: mugitu! Eta izan leikela diñogu, zuk zeuk emongo dotsazulako koloria sendagai honi. Etorri, etorri! Parte hartu! Aukerak badira sasoi honetan exigitzen jakun irribarria ahotik ez kentzeko, baina benetako irribarre bat lortu nahi genduke, hainbeste makillaje barekua.”



Gaztetxeko Jardunaldi Kulturelek haize berria ekarriko dute herrira datozen asteetan.

Gaztetxia agenda

Abenduak 16 19.30etan
BIRMANIAKO DISPOSITIBAK
Fernando Oregiren eskutik.

Abenduak 17 eta 19 21.30-22.30etara
SALSA IKASTAROA
Soraluzeko bi kubatarren eskutik.

Abenduak 18 19.30etan
GLOBALIZAZIOAREN INGURUKO TXARLA
Hemen eta munduan taldearen eskutik

Abenduak 20 23.00etan
Salsa gaua
(salsa, edari kubatarak, etab)

Abenduak 21 22.30etan
KONTZERTUA
Borrokan + talde sorpresa

Abenduak 26 22.30etan
KONTZERTUA
Ehiztari beltza + talde sorpresa

Abenduak 27 19.30etan
BAKARRIZKETA
Juan Plazaola Anidaren eskutik

Abenduak 28 17.30etan
TRUKE AZOKA ETA UMEENDAKO OPARIAK

Abenduak 29 19.30etan ANTZERKIA
INTERRUPTUS “dias de luna llena”

Abenduak 30 19.00etan NICARAGUA
diapositiva emanaldia, material erakusketa eta Proiektuaren aurkezpena.

Urtarrilak 3 19.00etan Iñaki eta Asierren omenezko pelota txapelketako diapositibak.

Urtarrilak 5 19.30etan ANTZERKIA
LA TIRILI “el tenderete”

Urtarrilak 6 18.00etan HITZALDIA
Animalien defentsa

Urtarrilak 7-9ra PALESTINAKO ARGAZKIAK

Urtarrilak 9 19.30etan Bideo, diapositibak eta txarla palestinari buruz
Komite internazionalistak

Urtarrilak 10 eta 12 19.00-21.00ra
Sexualitate ikastaroa

Urtarrilak 13tik 19ra
HAINBESTE AZPIEGITURA ZERTARAKO? ARGAZKIXAK ASTE OSUAN

Urtarrilak 14 19.30etan doKumentala

Urtarrilak 17 19.30etan hitzaldia
Mutriku eta jaizkibelgo superportuak


Urtarrilak 18 9.00etan mendi garbiketa + bazkaria + tertulia (gaia: hainbeste azpiegitura zertarako?)

Urtarrilak 19 19.30etan Pelikula

AMAIERA

Mendata taberna

Urte berri on!!



Berezitasunak:
Txipiroiak, Barazki
Menestra, Gixauak...
Asteburuan plater konbinatuak
Enkarguak etxerako
(bazkariak eta afariak)
Kalebarren, 5
Tfnoa 943 75 13 87

Gabon zoriontsuak!!



IÑAKI
IÑARRA

HARATEGI ETA
URDATEGIA

Kalebarren 29
Tfnoa 943 75 12 49
Soraluze

Atletismoa

Juantxo "Erbixa" izan zen garaile Atxa Memorialean



Jesus Atxaren omenez, 21. Aldiz egin da aurten Atxa Memoriale. Euri-ean jokatu zen eta denera 110 korrikalarik hartu zuten parte, Soraluzetarrez gain kanpotik etorritakoak ere zan ziren. Soraluzetarrek bi garapen lortu zituzten, Garazi Arizaga korrikalari gaztearena 8:02 ko denbora

eginaz irabazi zuena eta bestea nagusien mailakoa Juan Alberdi "Erbixak" irabazi zuena, 27:45 eko denborarekin 8 kilometro eta erdi inguruko ibilbidia eginez.

Juanek, Eibarko Bolumburu kros-sa irabazi ere irabazi berri du 31:53 ko denbora eginaz Arrate gainean.

Mendizaletasuna

Federatu eta bazkide egiteko epeak zabalik daude



Federatu Egiteko

2.003. Urteko federatu txartela ateztea nahi duenak, Mendi Taldean eskaera egiteko epea zabalik dauka, astelehen eta asteazkenetan mendi taldeko egoitzan. Aste Santutik aurrera federatzen denak, tramitazio gastuak ordaindu beharko dituela.

S.K.E.ko Bazkide Egiteko

Soraluzeko Kirol Elkarteko bazkide egitea nahi duen guztiari gogorarazten diogu, elkartearen bulego zaharretik pasatu behar duela datuak eman eta urteko kuota (8euro) ordaintzera. Bazkide eginez gero, S.K.E.ren material guztiaz gozatu dezakezue urte osoan eta bide batez elkartea finantziatzen lagundu. Gainera bazkide egiten den pertsona bakoitzari kamiseta bat erregalatuko zaio. Mendi taldeko arduradunek, federatu egiteko gomendioa helarazi nahi diote mendian sarri dabilenari.

Futbola

Lasaitasuna Soran

Aurreko urteetan ez bezala aurten go gabonak lasaiak izango dira Soraluzeko futbol taldeko hiru taldeentzat. Denboraldi ona daramate eta sailkapenean ongi sailkatuta egoteko nahikoa puntu lortu dituzte. Aipatzekoa da talde nagusiaren momentu ona; joan den urtean sailkapeneko atzeko postuetan aurkitzen zen ia partidurik irabazi gabe eta aurten aldiz sailkapeneko goiko aldetik gertu aurkitzen da.

Regionala:

1- Zumaiako	35
2- Urola	28
3- Mondragon	27
7- SORALUZE	18
14- Idiazabal	11
15- Elgoibar	7
16- Aurrera O.	6

Jubena:

1- Zumaiako	32
2- Elgoibar	28
3- Pasajes	26
10- SORALUZE	18
16- Lazkao	10
17- Sto. Tomas Lizeoa	7
18- Sporting de Herrera	3

Kadetea:

1- Bergara	26
2- Eibartarrak B	25
3- Amaiak Bat	24
6- SORALUZE	14
9- Eibartarrak	12
10- Urola	10

Pelota

Muguruza Euskal Ligan

Onar Muguruza. Gipuzkoako txapelketako finalerdietan dago eta. Euskal ligarako txartela ere lortu du.

Iñaki Jauregi Mungiako txapelketan parte hartzen ari da. Gipuzkoako txapelketari dagokion azken partidua irabazi du.

Aitor Atxotegi Gipuzkoako txapelketako ligan partidu bat irabazi du eta bi galdu ditu.

Jon Varela Gipuzkoako txapelketako ligari dagozkion azken bi partidua galdu ditu.

Erle Txurruka Eskuko minak gainditu ostean Lezaman Errarte-rekin batera jokaturako partiduan Beobide eta Garcia-ren aurka 22 eta 18 irabazi zuen.

Aritz Laskurain Asteleheneko partiduen ostean, Aritzi eskuko mina areagotu egin zaio eta denboraldi bat behintzat gelditu egon beharko du.

Silvio José Vaz Caro

“Hona etortzetik euskeria ein jata gogorrena”

Gure artian denpora gutxi doian arren, herrixan iada nahiko ezaguna ein jaku Silvio. Kubakiko sentitzen daben herrimina bizi bizi dauka baina Euskal herrixa gogoko daukala esan dosku. Pil-Pileanetik behintzat gure laguntza guztia eskaintzen dotsagu euskeria ikasteko.

Izena, abizena ta edadia.

Silvio José Vaz Caro naiz ta 25 urte dittut

Ze zaletasun dauzkazu?

Musikia, kirola, irakurtzia, diseinu grafikua (azken hau da ikasi nebana) ta dantzan eittia

Tokixa, zenbakixa, koloria ta musika taldia.

La Habana, zazpixa, berdia ta Red Hot Chilly Peppers.

Egun baterako planik onena.

Asteko nahi doten orduan jaiki, prisarik gabe Gero trankil trankil arnozau, mendira juan, kirola ein ta gabian parranda on bat bota.

Gustora geratzeko moduko bazkarixa.

Lehenengo arroza frijole beltzekin, gero txarrixa erreta ta postrian mamaízko batidua

Zer eingo zenduke 1.000.000 euro erregalauko bazotsuen?

Erdixa Txurrukakueri emon; geratzen jatanan erdixa Kubara bidali ta bestia gorde, aurreratu be ein bihar da ta.

Hiru desio.

Nere familixiakin elkartu, munduko gerrak amaitzia ta jentia musikian bidez komunikatzia.

Zer nehixauko zenduke ederrena ala aberatsena izatia?

Ez bata ez bestia, gehiegizko gauza guztiak txarrak dira ta. Diru asko eukitziak ez dotsu dana ematen ta ederrena izatiak bez.

Zer eskatuko zotsazun Olentzerori?


Ezebe, Kuban gabonak ez dittugu ta hemen bezela ospatzen. Han 25a ta 31a bakarrik dira jai egun berezixak.

Bertso Begiz

*Kuba maittia lagata honuntz
etorri zara Silvio
zure bihotzak izpiritua
alari daukazula dio.
“Larregixa da txarra”
bizilege edarra.
Txurrukana bazare lasai,
laster ikasikozu euskeraz
eta ondo jaten bebai.*

Etxebarri

(Doimua: Iparragirre abila dela)



Silvio José Vaz Caro

Hona etortzetik zer ein jatzun gogorrena?

Uf!!! Hona etortzetik euskeria ein jata gogorrena. Igual errez ikasiko dot baina...

Berdintasunik ikusten al dozu Kuba ta Euskal Herrixan artian?

Bai, gehixenbat jendian arteko harremanian. Hemen jendiak alkarrekin daukan tratua Kubakuan oso antzerakua da ta kalian sortzen dan girua berezixa. Txiste bat kontauko doskuzu, ezta?

Hor nun doian gizon bat kamioi bat gidatzen ta OBNI agertzen da bere inguruan. Kamioia geldittu ta zer pasatzen dan ikustera doianian zer ikusiko ta martziano bat besuak luze ta hankak motzak dittula, orduan galdetzen dotsa gure gidarixak ni Ramón naiz ta kamioi hau giatzen dot. Orduan erantzuten dotsa martzianuak: ni Rolando naiz ta kaka eitten nao. (Holan irakurritta txistiak ez dauka graziarik baina esan biharra dao erderaz kontauta oso ona zala).

Enara Agirre

Urte berri on!!

TXOKO KAFETEGIA



Kafe ederra hartzeko txokorik onena!

Kalebarmen 22 behe, telf: 943751789



Urte berri on!!

aras S.A.L.

DIN arauak jarraituz eta
zehaztasun handiz egindako torniluak

Industrialdea 20-21
50 Posta Kutxatila

Tfnoa 943 75 17 36 - 75 18 03
Faxa 943 75 22 95
20590 Soraluze

Argazki zaharra



1.953ko Uholdeak

1.953ko azaruaren 15ian izan ziran uholdiak. Irudian azaltzen dan moduan urak lantegixen lehiuetarainoko altueria harrapatu zeban. Inocencio Madina E Hijos lantegixaren lehiuetan langiliak ibaira begira azaltzen dira uraren mailarekin harrittuta.

Egoitz Unamuno

Lehiaketa

Zein da argazkixan agertzen dan basarrixa?




Bi lagunendako afari mundial bat irabazi zeinke!!

DEITTU
943 75 13 04 ra

Aurreko irabazlea: Aitor Perez
Erantzuna: Ankara

ELIZpE



h o r t z k l i n i k a


Urte berri on!!

Elizburu, 3 behea
9 4 3 7 5 2 5 6 7
20590 Soraluze



Tel.: 943 75 13 45

Gabon zorionitsuak!!



Ugaraxo



2.002ko abenduaren 12. alea Plaentxi H. I. eta Pil-pilean aldizkarixa elkarlanian
Aldizkari honek udalaren dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko

Mari Domingin etorri da!

Ezagutzen duzue Mari Domingin?

Guk, 2. mailako ikasleok, joan zen urtean ezagutu genuen. Oso jatorra da. Gabon aurretik gure gelara etorri zen eta galdera asko egin genion. Esan zigun Olentzeroren lagun handia dela eta mendian bizi direla.



Mari Domingin urtero etortzen da umeen desioak betetzera. Gero mendira bueltatzen da Olentzerorengana.



Guk oso gustora hartzen ditugu bai Olentzero eta bai Mari Domingin, erregalo asko ekartzen dizkigutelako.

Bion artean irakurtzen dituztela gure karta guztiak, eta gero Gabon egunean opariak banatzen dituztela etxerik etxe. Agian, aurten ere etorriko dela esan zigun. Etorriko ahal da?

2

Ugaraxo

Udazkeneko merienda mundiala



Udazkeneko fruituekin antolatu genuen merienda oso goxoa atera zitzaigun. denon artean prestatu ondoren, formal-formal jan genuen eta... oso ondo pasatu genuen.

Jaten hasi aurretik zorioneko argazkia atera arte itxaron behar izan genuen.

Andreñoari esan diogu horrelako gehiago egin beharra daukagula, oraindik ez dugu ondo ikasi eta.

Munduan haur askok ez dute gure moduan nahi beste jaterik izaten eta aurten Olentzero eta Mari Domingini, munduko haur guztiei opariak ekartzeko eskatuko diegu.

GABON ZORIONTSUAK!



Gu ere tripazorriak jota geunden, ahotik adurra dariola baina argazkia atera arte ezin hasi. Hurrengoan hobe lehenengo jan eta gero gerokoak.

28AN OLENTZERO ETA MARI DOMINGIN DATOZ BERRIZ

Olentzerok eta Mari Dominginek Pil-pileaneko erantzungailura deitu dute. Opariak sobratuko zaizkiela eta abenduaren 28an berriz ere etxez etxe ibiliko direla jakinarazi digute. Beraz, eskatu opari gehiago eta esan aitari edo amari aurten Olentzero eta Mari Domingin bi aldiz pasatuko direla.

Gabonetan zer gauza berezi egitten dozu?

AINHOA GALLASTEGI
8 URTE

Erregaluak jasotzen di ttugu. Aurten amaman etxera juango gara eta ia Olentzerok erregalo mordo bat ekartzen dostan.



JOSU BENITO
6 URTE

Nik sukaldeko mahaixa eruaten dot salara eta han afaltzen dot. Jaiotza txiki bat be ipintzen dogu etxian.

LAURA LOPEZ
8 URTE


Familixa dana batzen gara eta afaldu egitten dogu, Zornotzan edo Santoñan. Kanpaiekin batera mahatsa jan eta hola...



GORKA SANTA MARIA
6 URTE

Asko jolastu. Arbolia ipini etxeko salan. Amaman etxian afaldu eta turroia eta polboroiak jan.

Ikusi Makusi Zein Ikusi?



Zein da alboko argazkian agertzen dan emakumia ?

Zein dan baldin badakizu,
DEITU

943 75 13 04 (Pil Pilean) telefonora
eta emon zure erantzuna. Emon zure izen abizen eta telefonua.

Asmatu ezkerro **liburu edar bat** irabaziko ahal izango dozu.

Aurreko aleko irabazliak:

Andoni Riko eta Imanol Heras
Erantzuna: Ramon Oregi
Saria IRATXO Goxodendan eskatu

Esaxozu... (amodiozko, zorion agurrezko... mezuak)

Andereño honek onenak dira;
Ana, Beha, Jose eta Mariasun.
Mesedez esan alkatari
jolaslekua konpontzeko. Aupa
Pil-pilean! Egoitz onena zara!
(Leire,Ane, Irene, Kata, Nekane,
Maitane, Nerea eta Sheilan
partez). Euskaldun martxosuek
gara eta Egoitz ia noiz ekartzen
dittuzun bertso eskolako bideo,
ahulki... eta materixal horrek



(Iker B., Oier F., Markel H., Jon G., Ekaitz G., Haritz A.).
ZORIONAK Markel M.ri eta ia larunbatian gol gehi axo sartzen dozun (Iker B. , Jon G.). Ama, aita eta senidiori urte berri on bat opa dotsuet! (Urko A. Jon L.). Aupa 6.Bko neskek; Ixone, Mireia... (6.Bko mutilak).

Gabonetako koplak



Han goian-goian izarra
Errekondoan lizarra
Mendi hontako ikaskin jaunak
Urre gorrizko bizarra.

Mendiko andre mardula
Toki honeko alaba
Bidean nator ondo jakinik
Esku zabala zarella.

Aurten berriro etorriko da
Olentzero guregana,
erregaluak guri banatzen
hartuko dau kriston lana. (M.A.)

Olentzeruak ekarrikoskuz
erregaluak etxera,
abenduak hogeitabostian
ta postu egitten gara. (O. F.)

Abenduaren hogeitalauan
Olentzero hona dator,
gehixenondako erregaluak
ondo poratu garalako.(I.B.)

Olentzero ta Mari Domingi
bixak etorriko dira,
erregaluak banatu eta
juango dira mendira. (A. A.)

Olentzero Interneten

Bisitatu Olentzeroren txokoa



Jaurti

SORALUZEKO INSTITUTUKO GAZTIEN ALDIZKARIXA

Soraluzeko Institutua eta Pil Pilean aldizkaria elkarlanean. Udalaren laguntzaz.

2.002ko Abendua 4. alea



Eurak ere ez dakite zela heldu diren finalera baina gustora daude. Talde batek uste du beste taldea errez menperatuko duela baina apostuek besterik diote; gazteen alde dago dirua. Onenak irabazi dezala.

Eskolako futbol txapelketa

Kurtso hasieran euskara batzordeak antolatuta futbol txapelketa jokatu da

jolasorduetan orain gutxi arte. Partiduak atzeratu egin behar izan dira eguraldi txarragatik.

Abenduaren 20an jokatuko da finala eta irabazleak saria izango du.

Postal Lehiaketa


Garazi, Iker eta Oskar izan dira aurtengo gabonetako postal lehiaketaren irabazleak. Hain gazteak izanda pena bat da baina nonbaitetik enteratu dira Olentzero eta Mari Domingin ez direla aita eta ama... irakasleren batek esango zien. Garazik korrika egiteko zapatila berriak eskatu ditu, Ikerrek dirua eta Oskarrek zakurrarendako gomazko hezur bat. Eta zuk, zer eskatu duzu zuk?



Garazi, Iker eta Oskar postalak eskuetan.

Nahas mahaseano

ISTITUTUKO WEB ORRIA



Istituturako Web orri bat egiten dihardugu. Ez da Web orri porno bat, horretarako badago nahikoa lehendik ere. Batez ere Web orri bat zer den eta zela egiten den ikasteko hariketa da. Web orri honetan Istitutuko eguneroko kontuak sartuko ditugu eta interesa duen guztiak begiratu ahal izango ditu.

ISTITUTUKO CD-TEKA



Istitutuko ikasleen musika zaletasunari jaramon eginaz, denetariko euskal musikaz osatutako CD teka bat egin nahi dugu. Rocka, folka, popa, jazz, bluesa, musika klasikoa... denetik izango da. Poliki poliki CD berriak erosi edo jendeak etxetik kopiak ekarri ahala, CD teka eder bat osatzea da helburua. Musika belarrira izateaz gain eskura ere izan dezagun.

KIROLA ESKOLAN



Ez dakigu oso ondo hokeyan baina ikasiko dugu, horretarako daukagu Julio. Matematika edo fisikako eskolak baino dibertigarriagoa da behintzat. Eskolatik kanpo ez dugu kirol asko egiten. Astirik bai ala? Kirol mentala agian bai eta gehiegi.

BEGIRA GAUDE BEGIRA...



Begira gaude begira, besteak zer egiten ote duten. Guk ez dakigu zer egin eta besteei begiratzen diegu ia zertan diharduten. Lehen ez ginien aspertzen baina orain bai, "tontoarena" ez egitearren lurtean botata egoten gara. Hau bizimodu tristea...mutil edo neskalaguna behar dugu!

Sexuaren indarra



Azken hilabeteen seksologiako eskolak hartzen dihardugu. Irakasleak dira seksuaz berba egiten digutenak, zeozer badakite antza. Seksua gozamen iturri den aldetik jolasa da baina kontu serioa ere bada eta behar bezalako neurriak hartzen ez badira, ondorio izugarriak ekar ditzake. Oraintxe ari gara guzti hori ikasten. Eta hartu beharreko neurriak behar bezela hartu ezker...



Gaztetxea: Gazteon Etxea

Gaztetxea "Gazteon Etxea"
Orain sarri joaten gara Gaztetxera. Hasieran pixkat lotsatzen ginen gu baino jende zaharragoa zegoelako eta sartzen ginenean begiratu egiten zigutelako baina orain lasai lasai sartzen gara gogoak ematen digunean. Gurasoek eta jende nagusiak oso geizki hitz egiten digu Gaztetxeaz; zikina dela, drogak besterik ez daudela, alperrontzi batzuk direla han egoten direnak...eta beste mila gauza. Horrenbeste aldiz entzuten dugu, ze azkenean geronek ere sinistu egiten baitugu. Lehenengo aldiz sartu ginenean gogoan dut nagusienai entzundakoak egia zirudiela pentsatu nuela baina sartzen hasi eta hilabete batzuetara guztiz baztertu nituen ideia horiek. Baztertu ez dakit baina beste ikuspuntu batetik begiratu bai. Goazen banan banan: Zikina? Bai, batzuetan Gaztetxea zikina egoten da. Eta zer? Ez al doa zikinago azpian doan ibaia? Eta nork zikintzen dugu?

Badakigu hori ez dela aitzakia, baina zer pentsatua ematen du. Eta gainera, noizkoa da hauts hondar bat ere ikusi ezineko moda berri hau? Oraindela 20 urterarte inungo etxetan dutxarrik ere ez zegoen eta... garbitasuna ondo dago baina gustora egoteak ere balio du! Eta etxe askotan baino gustorgo egoten gara gazteok Gaztetxean. Drogak? Bai, noski. Eta zer? Ba al dago ba drogarik ez dagoen lekurik? Tabernak agian? Gaztetxean astebetean kontsumitzen den droga baino hamar aldiz gehiago kontsumitzen da edozein tabernetan arratsalde baten. Drogekin bizi den gizarte hone-tan bizi ahal izateko, informazioa eta kontzientziarioa eman beharra dagoela, horixe da egia bakarra! Alperrontziak? Bai, noski. Eta



zer? Nor da ba hemen langilea? bere buruarendako etekina pilatzeko ez bada? Ba Gaztetxean inork ez du kobratzen eta danok lan egiten dugu (batzuk gehiago beste batzuek gutxiago leku denetan bezala... baina denok. **Gaztetxea kultura da; sormena, askatasuna, musika, filosofia, politika, sek-sua, berbeta lekua, jolas-lekua, egoteko lekua, elkar-tasun lekua, Gaztetxea da; GAZTEON ETXEA besterik gabe.**

Gaztetxian egoteko ohiturarik?



Ohiana Uribe

15 urte

Ez. Gu baino jende nagusitsuagua egoten da eta lotsatu egiten gara. Gu frontoian egoten gara.

Daiana Rico

14 urte

Ez. Oindio gaztiegiak garalako. Frontoian egoten gara, lagunak han egoten dia eta. Pixkat aparte dao eta trankilao egoten da.



Joseba Larrañaga

15 urte

Bai. Kontzertuak darenian eta, juaten naiz. Lagunak juaten dianian ni be juaten naiz.

Endika Goyogana

17 urte

Bai. Gaztiak juntatzen garan toki bat da, "gaztien etxia" izenak esaten daben moduan. Kartetan eta futboinian jolastu eta berba egiten dogu.



Bertsogintza

Menditik ekarria
kriston artelatza,
ni baino handiagoa
eta kriston antza.
Laga dugu papela
eta egurrezko arkatza,
gaur dugu egun handia
jateko legatza,
itxuraz gozoa
benetan latza,
probatu arte ez jakin
benetan mikatza.
Jaiak bukatutakoan
pasa behar erratza,
ez dakit nola baina
daukat kriston zalantza.



Leire Elizburu

Soraluzera iritsi dira
aurtenguan be gabonak,
Olentzerua ta erregiak
danondako dia onak. B.A.

Nahizta diruak asko balio
eta diruz ondo bizi,
zoriontasun dana ezin da
diruarekin erosi. U.A.

Hemen datorren ostirala da
zoriontasun eguna,
eskolatikan etxera juanda
jai hartu behar doguna. J.U.



Aurten ere iritsi zaizkigu
Euskal Herrira Gabonak,
ta hainbat umek espero ditu
etxean opari onak. A.U.

Txistiak

Badoia marraskilo bat eta
derrapau itxen dau.

Tipo bateri tokatzen jako loterixia
eta esaten dau:

-Jaoken kotxerik onena erosi bia
juat.

Juten da mercedesan etxera eta
esaten dotxa bertako tipuari:

-Daukazu kotxerik onena nahi
dot.

-Hemen daukazu ml 500
modelua. Larruzko asientuak,
airbag lateralak, salpikaderua
egurrakin bukatuta dotore eta
ordenadoria. Eta hau izango da
reboluzinua ze aberixa bat
daukanean kotxiak intemitiak
piztu eta baztarrera iruaten dau
eta gainera zuk ezebe in gabe
tailarrera deitxu eta ze aberixa
daukan esaten dau.

-Ondo ondo. Ekarri.

Badoia etxera eta herrira heltzeko
200m falta ziranian intemitiak
piztu eta kotxia baztarrera doia
eta esaten dau tipuak:

-Ze kaka pilo erosi juat baina!!!
Eta kotxiak esaten dau atiak itxi
ta zabalduz:

-Kaka pilua erosiko huan baina
hik bota doken puzkarra be edarra
izan dok!!

KOMIKIAK



Soraluze
Ariznabarreta



Osoro

ipilean

ipilean

300

300

300

300

300

300

aurten baietz

300

300

300

300

300

300

300

300

bazkide!

300

300

300

ipilean

Lagundu deixogun Korrikari !!



10€ ren
truke metro
sinbolikoa
erosi eta lagun
lezaiozu korrika 13ri
bidea urrats
sendoz egiten.



Izan zaitez

korrika LAGUNTZAILEA

...eta gainera aprobetxa itzazu
txartelak, Euskal Herri osoan,
emango dizkizun abantailak

**...eta gainera aprobetxa itzazu
txartelak, Euskal Herri osoan,
emango dizkizun abantailak**

Onura guztiak aprobetxatu
ahalizateko bete itzazu omak
eskatzen dituzten datuak eta
korrika laguntzaile txartela
jasoko duzu.



**40 baino gehiago dira korrika laguntzaileei
beherapenak eskainiko dizkietenak.**

- | | | | |
|--|---|---|---|
| <ul style="list-style-type: none"> • Aizoa (Lapurdegia) • Berrizte (Lapurdegia) • Durasko (Lapurdegia) • Gasteiz (Lapurdegia) • Leizor (Lapurdegia) • Leizor (Lapurdegia) • Leizor (Lapurdegia) • Leizor (Lapurdegia) • Leizor (Lapurdegia) • Leizor (Lapurdegia) • Leizor (Lapurdegia) | <ul style="list-style-type: none"> • Urtxun (Lapurdegia) • Urtxun (Lapurdegia) • Urtxun (Lapurdegia) • Urtxun (Lapurdegia) • Urtxun (Lapurdegia) • Urtxun (Lapurdegia) • Urtxun (Lapurdegia) • Urtxun (Lapurdegia) • Urtxun (Lapurdegia) • Urtxun (Lapurdegia) • Urtxun (Lapurdegia) | <ul style="list-style-type: none"> • Urtxun (Lapurdegia) • Urtxun (Lapurdegia) • Urtxun (Lapurdegia) • Urtxun (Lapurdegia) • Urtxun (Lapurdegia) • Urtxun (Lapurdegia) • Urtxun (Lapurdegia) • Urtxun (Lapurdegia) • Urtxun (Lapurdegia) • Urtxun (Lapurdegia) • Urtxun (Lapurdegia) | <ul style="list-style-type: none"> • Urtxun (Lapurdegia) • Urtxun (Lapurdegia) • Urtxun (Lapurdegia) • Urtxun (Lapurdegia) • Urtxun (Lapurdegia) • Urtxun (Lapurdegia) • Urtxun (Lapurdegia) • Urtxun (Lapurdegia) • Urtxun (Lapurdegia) • Urtxun (Lapurdegia) • Urtxun (Lapurdegia) |
|--|---|---|---|

Laguntzaileak



Gabon zoriontsuak

Musutxubek!



bizi euskaraz!!

eta urte berri on!!

 pilpilean

ZURE ORDENAGAILUAK ZINTZILIK UZTEN BAZAITU...

DEITU KZlaguntzara

Tel.: 902 544 545
www.kzlaguntza.net

KZlaguntzak, informatika orientazioko doako zerbitzu berriak, ordenagailuen munduarekin zerikusirik duen edozein zalantza argitzen lagunduko dizu.

ARRETA ORDUTEGIA
KZlaguntza

Igandetik ostegunera:

10:00etatik 22:00etara

Ostiral eta larunbatetan:

10:00etatik 24:00etara

aurrera doan
herria



 **euskadi**
informazio elkarrean en la sociedad de la información

